

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onestea udal aurrekontuko kreditua aldatzeko 2/2026 espedientea

Udalbatzak, 2026ko uztailaren 30eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea kredituak aldatzeko 2/2026 espedienteari. Kreditu hori gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinen kontura finantzatuko da.

Espedienteen hasierako onespena jendaurrean erakusteko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, hura behin betikoa bihurtu da, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.3 artikuluan jasotakoa betez, osorik argitaratzen da kreditua gehitzeko 2/2026 espedientearen xedapen zatia, aurrekontu aplikazio hauei dagozkien gastuak aintzatesteko:

Altak gastu aplikazioetan

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
231.211.000	ERRETIRATUEN ETXEA MANTENTZEA	1.500,00
410.211.000	OLIO DOLAREAREN MANTENTZE LANAK	5.000,00
1532.210.003	BIDE PUBLIKOAK	3.000,00
330.226.005	KULTURA JARDUERAK	2.500,00
341.226.007	KIROL JARDUERAK	3.000,00
920.130.001	UDALETXEKO GARBITZAILEAREN ORDAINSARIAK	500,00
338.226.006	OLIO KULTURARI ETA ARDOEI BURUZKO JARDUNALDIETAKO OSPAKIZUNAK	10.000,00
342.211.000	IGERILEKUEN MANTENTZEA	5.000,00
920.131.001	ZERBITZU ANITZEKO LANGILE BATEN ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA	1.500,00
920.622.021	OBRA TXIKIAK	12.241,01
GUZTIRA		44.241,01€

Aldaketa hori ondoren zerrendatzen diren partidekin finantzatuko da, eta hala, espedientea parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

Altak diru sarreraren aplikazioetan

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	44.241,01€
GUZTIRA		44.241,01€

2026ko ekitaldirako udal aurrekontuko kreditu aldaketaren espedientearen behin betiko onespen erabakiaren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango dute zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabete izango dituzte, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lantziego, 2026ko irailaren 1a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA